

(AIPAMEN)  
**JUAN HUARTE ETA BERE  
“EXAMEN DE INGENIOS”**

Luis S. Granjel

Granjel Irakasleak, 1988. urtean, Donibaneko Huarte sendagileaz eta bere “Buruargien azterketa” deituriko lan ospetsuaz, liburu interesgarri bat idatzi du. Salamanca-ko Medikuntza Akademi Errealaren argitarapen honekin, berbizkundero euskal sendagile ospetsu honi omenaldi bat egiten zaio, bere heriotzaren laugarren ehunurtebetetzean. Nire ustez, gure artean, gertaegun hau nahiko oharkabea gertatu da, eta liburu bikain honen argitarapenak, Huarte Sendagilearen lana eta nortasuna, behintzat gaisetaz aztertzeke aukera ematen digu.

Granjel Irakasleak, orotara 118 orrialde dituen liburu hau hasteko, Huarteri buruz zenbait biografia adierazpen ematen ditu, oharteraziz, “urarte” abizen euskalduna zuen sendagile honi buruzko informazioa urria dela. Donibane Garazin jaio zen 1529. urtean. Behe-Nafarroko herri hau, Carlos I-aren menpean zegoen, baina laster utzi zuen Frantziaren menpe, defendatzeak suposatzen zuen zailtasunagatik. Huarteren lana eta bizitariburuz egin diren ikerketa garrantzitsuenak, Rodrigo Sanz-enak 1930.ean, eta 1938.enean Iriarteko Aita Mauricio-renak dira.

Etxeak zituen Tarancon eta Linares-en, eta herri haietatik ibili zena jakina da. Era berean, Alcalá de Henares-en egon zela, han egin bait zituen medikuntza ikasketak XVI. mendeko erdialdian; karrera aurreko ikasketak Baezako Unibertsitatean egin zituela susmatzen da. Badirudi, denboraldi labur batetan, Medikuntzako katedradun bezala, irakasle izan zela Huesca-ko Unibertsitatean. Duela gutxiko lekukotasun batek, Javier Sanz Doktoreak bere *Siguenzako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Kondaira* liburuan ematen digunak,

baieztatzen du Huarte Doktorea 1576.eko urtarril eta irail artean, Unibertsitate horretako Medikuntzako katedraduna izan zela, kargu hau Siguenza hiriko sendagile lanarekin batera bete zuelarik. Antza, sarritako kanporaldiek lanpostuan, udaletxea bultzatu zuten bere kontratua ezeztatzerara. Mediku gisa, Linares eta Baezan ere aritu zela badakigu. 1588. urtean hil zen.

Liburuaren egileak, iruzkin berezi bat egiten du, Huarte Doktoreak bere abizena ezkutatzeko egin zituen ahaleginetaz. Ondorengo izenen bidez ezagutua izan zen: Donibaneko Juan, Donibane Dr., Duarteko Juan, eta Ugarteko Donibane Dr. Bakarrik, jakitera eman zuen bere benetako izena, bere "*Azterketa...*" liburuaren azalean, eta hor bertan bere Behe-Nafarroako jatorria ere adierazten du. Gauza hauek, bere bizitzari buruz dakizkigun datu gutxiak, zenbait tokitan emandako egonaldi laburrak, eta medikuntzan jarduteko judutarrek duten "Buruargitasun"aren defentsak, Huarte Doktorea judutar jatorrikoa zelako susmora eramaten gaituzte. Susmo hau, Americo Castro-k eta Julio Caro Baroja-k ere, esan eta mantendu dute; azken honek, "*Azterketa...*" irakurri ondoren, Huarte abizena Nafarroan, judutarren artean ematen dela ohartarazten du. Granjel-ek gainera azaltzen du, Huartek bere aurreko beste "kristau berriak" mantendu zuten pentsamolde bat jarraitu zuela. Horien artean: Vives, Gomez Pereira eta Enrique Jorge Enríquez, XVI. mendearen azkenaldian argitaratutako *Mediku huskabearen argazkia*.

Dagokigun liburuaren zatirik nagusienak, Huarte Doktorearen, lehenengo aldiz 1575.enean inprimatua izan zen, "*Zientzietarako buruargitasunen azterketa*" lan ospetsua aztertzen du. Liburuaren helburua oso berezia izan da, eta harrera ona izan zuen. Bere asmoa zen, jendeak liburua, gida legez erabiltzea, norberak bere "buruargitasun" edo natur trebetasunen arabera, bere nortasun edo izaerari egokia zitzaion ogibidea aukera zezan. Aldi eta leku askotan berinprimatu eta argitaratu zen. Honela, Iruñea, Bilbo eta Huescan argitarapen errenazentistak egin ziren, gure mugetatik kanpo, Herbereetan sei alditan; Frantsesera, italiara eta ingelesera garaiz izan zen itzulua, XVII. mendean Latinez eta holandeseaz azaldu zen, eta XVIII. mendean Alemanerara itzultzen da. Denetara, 77 argitarapen zenbatzen dira, izenburuaren 89 aldaketa kontatzen direlarik.

Lana inkisiziora salatua izan zen, ondorioz Huartek, zenbait gauza aldatu behar izan zuen, hala ere, trebetasun handiz, itxuraketa eginez benetan pentsatzen zuena adieraztea lortu zuen. Granjelek dioenez, Felipe II.aren erreforma aurkako politikak, bere mendelurretan Erasmozaletasun edo Luterozaletasun arrastorik ere ager ez zedin ipintzen zuten ardurak, eta bestalde, "kristau berri" suposatutak zirenak inkisizioarengandik jasaten zuten zaintzak, eragin zuten liburuaren salaketa.

"Tradizioa, zirkunstantzia eta perbibentzia" deritzon kapituluan, Granjel irakasleak "Azterketa"-ren ulermen egoki baterako aipatzen ditu: informazio iturri zuzena, Huarteren idazlana idatzia izan zen garaiko kultur baldintzak, eta izan zuen eragina. Honela, ikus daiteke, bere teoria, humoral doktrinan eta galenikar tipologian oinarritzen dela. Etengabe, bere baieztapenak egiaztatzeko eta indartzeko, Hipokrates, Galeno eta Aristotelesengan linkatzen da, gutxi batzutan Platon eta Ciceronengana jotzen du. Klasikoenganako babespen hau, erabiltzen du Huartek bere garairako arraro izan zitezkeen teoriak idazteko. Bestalde, Huarterengan eragina dute Vives bezelako psikologi teorikoek. eta medikuek, Gomez Pereira eta Francisco Valles, besteak beste. Errege-erregin

Katolikuen zerbitzuan egon zen Pedro de Monte militarra, bere aurretiko hurbilena bezala hartua izan da. Huarteren lana garaiko medikuek kritikatu zuten eta ez zuen harpen ona izan lanbide honetako zenbait alderditan. Dena den, bere ikasbideak maiz dira aipatuak Lope de Vega, Tirso de Molina eta Alarconen antzerki lanetan; Quevedok ere laudatzen du, eta zenbait egilek diotenez Cervantesen lanean eragina izan zuen. Huarteren eragina oso nabaria izan zen Frantzia bezalako herrialdetan, eta bere lana alemanerara nabarmenki itzuli zuen Lessing-ek. Huartek "Zientzietarako buruargitasunen azterketa" familiei eta jendeari orokorrean, lanbide edo pedagogico-sozial orientabide batetarako gida liburu moduan eskeini zien.

Huarte Doktorearen lanaren zati nagusiak, berak hitzaurrean aurreratzen digun gaiari buruz jarduten du: "Es obra donde el que leyere con atención hallara la manera de su ingenio, y savrà escoger la ciencia en que más a de aprouechar". Gurasoek, hezitzaileek, eta abar, idazlana, gida edo kontsulta moduan, gizabarra bere bereizgarri edo trebetasunen arabera, lanbide batetara zein bestetara bideratzeko erabil dezatela, nahi du. Huarte, egungo psikologia indibidualaren eta lanbide orientabidearen aitzindari bat da. "Azterketa"n, bi zati argi bereizten ditugu lehenengoak, bitxienak, argitarapenaren arabera aldatuz, hamalau bat kapituluz osaturikoak, bere "buruargitasun"en doktrina azaltzen du, hots, gizaki bakoitzaren ezaugarri edo bereizgarria eta ogibide bat zein besterako gaitasuna. Huarte, lanbide batzuk eskatzen dituzten kualitate konkrituak aztertzen gelditzen da, adibidez: medikuntzak, teologiak, edo zuzenbideak. Bigarren zatian, aholku multzo bat ematen du izpiritu genialak lortzeko, eta, seme-alaben sexua aukeratzeko ere; arautegi eugenikoa da. Huarteren lanaren helburu praktikoa oso argi dago: haurtzarotik ume bakoitzarengan bere gaitasun berezia aurkituko duten eta aukeraketa pertsonala kontuan izan gabe, gaitasuna baizik, haurrak, komeni zaiena ikastera gidatu, behartuko dituzten psikologo hezitzaileak formatu. Huarte, irakurlearengana zuzentzen da hiru puntu azpimarratuz: lehenengoa, gaitasun desberdinen artean bat bakarrik nagusitzen dela; bigarrena, gaitasun bakoitzari zientzia bat bakarra dagokiola eta ez besterik; hirugarrena, zein zientzia dagokion ezagutu ondoren, jakin behar dela, trebetasun hori egokiagoa den praktitarako, ala teoriarako. Huarteren lanean, bere garaiko antropologia eta ohiturazko iritzietan oinarrituz, "ingenio" edo gaitasun eta izaeraren arteko menpetasunezko erlazioa defendatzen da. Izaeraren indibidualtasunean organismo osoak parte hartzen du, organu batzuk eragin nabarmena dutelarik, sexualek adibidez. Huarterentzat burmuinean, oroimena, adimena eta irudimena finkatzen dira, baina burmuin ikasketetan iritzi antilokalizacionista argi bat jarraitzen duelarik; Huarte, bada, ez da frenologiaren aitzindari, baina beste alderdi batzutan, aurreratu zitzaion Kretschmer-i, batik bat, egitura fisikoa eta izaeraren arteko egokitasuna adieraziz. Gizaki bakoitzak trebetasun edo aurrejarrera pertsonal bat duela, hau, burmuinarekiko lotura duen izaeraren menpe dagoela, baina bertan, beste organu batzu ere eragina dutela, batez ere sortzaileek, eta halaber, adinak, eguraldiak, eta dietak. Granjelek dioenez, Dantin Gallegok adierazten duen bezala, Huartek adimena, mediku, mediku-psikologiko eta biologiko ikuspuntutik aztertzen du, beraz, egingo luke gizaki moten bereizketa izakera orotasunean hartuaz eta zehaztasun guztiak sartuz: genetika, eugenesika, gaitasun profetsionala, fisiologi klasikoa, endokrinologia, eta karakterologia. Mundu biopatologiko honetan oinarritzen du Huartek bere lanbide orientabidea.

Granjelentzat esanahi berezia dauka sendagile onaren irudia azaltzen duen kapituluak. Zehaztasun handiz egiten du, eta ez da harritzekoa, egilea sendagilea bait da. Kapitulu honen lehenengo zatian argitzen du zein den lanbide honetan jarduteko behar den “buruargitasuna”, eta bigarren zatian, mediku judutarraren laudorio bat egiten du, hobeto esanez, judutarren lanbide honetarako dituzten ezaugarriena. Laudario horrek harritzen gaitu, aurreko mendean juduak herrialdetik kanporatuak izan bait ziren, eta “kristau berri” edo konbertituei medikuntzan aritzea debekatu bait zitzaien “odol garbitasuna” frogatzea eskatzen zitzaielako. Huartek, bi sendagile mota bereizten ditu: sendagile eruditua, bere jakinduria hedatzen aritzen dena, eta sendagile praktikoa, benetako profesionala, sendatzen aritzen dena. Huarterentzat, arraza, geoklimatiko, dietetiko eta beste zenbait faktore direla eta, sendagile judutarra kualitate handikoa da. Ezaguna da, “odol garbitasun” betebeharra arren, XVI. mendean, eta aurreko garaietan ere, ospe handieneko sendagileak judutarrak izan zirela. Jauntxo eta erregeen korteetan lan egiten zuten; batzuk arazoak izan zituzten eta herrialde jasankorragoen bila joan behar izan zutelak. Jatorri honetakoak izan ziren: López de Villalobos, Andrés Laguna, Gomez Pereira, Juan Frago-so, eta badirudi, Huarte bera ere horien artekoa zela.

Huartek, bere liburuan, Granjelek “Buruargitasunen eugenika” deritzon kapitulu ere sartzen du, hots, gaitasun intelektualaren hobekuntza eginkor bat, buruargitasunen transmisio heredagarrien bidez. Horretarako, bikoteei aholku batzu eskeitzen dizkie seme-alaba adimentsuagoak lor ditzaten. Gizonezkoek, emakumezkoek baino perfekzio biologiko handiagoa dutela, eta azkenik, buruargitasun onen oinarri diren izaerak mantentzeko eta potentziatzeko, ematen ditu heziketa arau batzu. Teoria batzu idazten ditu esanez, zein gizezko nolako emakumezko motarekin ezkondu behar duen ondorengo onena izateko, eta garaiko ohituren aurka emakumeen goizezkontza ez du aholkatzen. Beraz, Huartek gaur egungo endokrinologia eta biopatologian oinarrituriko teoriak eskeintzen ditu.

Granjelen idazlan interesgarria, Huarte Doktorearen lanak merezi izan duen balioztapen historikoarekin bukatzen da. Bere “Azterketa” kaleratu bezain laster, kritika ugariak jaso zituen eta Inkisiziora salatua izan zen. Frantzian prediku handia izan zuen, eta Alemanian, Lessing-ek bere lanaren ikertzaile aparta izan zen eta lana bere hizkuntzara itzuli zuen. XIX. mendean, “Azterketa” testu bizi bezala ez da hartzen, eta balioztatua eta interpretatua izaten hasiko da. Morenjoñ eta Chinchilla espaniar historiagileak beretaz arduratu ziren, eta zenbait doktor tesien gaia izan zen. Huarteren lanaren ikertzaile bikainenak Rodrigo Sanz eta Aita Iriarte dira. Menendez Pelayok eta Marcial Solanak ere zehazki ikertu dute, eta neurri gutxiagoan: Farinellik, Carreras Artauk, Alán Guyk eta Abellanak. Marañon Doktorea, espaniar sendagileen artean, Huarteren defendatzailerik amorratuena izan zen. Hala ere, psikologiko historiagileak Huartez gutxi arduratu ziren; dena den, batzu bere lanetaz interesatu ziren, bereziki: Emilio Miñana, Lucio Gil eta Fagoaga, Simonena eta Zabalegi. Funtsezkoak dira Mallart eta Antonio Vázquez Fernándezek ekarpenak. Bukatzeko, aipatu beharrezkoak dira Esteban Torrek Huarte Doktorearen ideia literario eta linguistikoei buruz egindako ikerlanak, esaten du “Azterketa”, urrezko mendeetako teoria literario eta linguistikoak ezagutzeko, funtzeko liburua dela.

Granjelek liburua bukatzen du esanez: "Con Huarte alcanza una de sus cumbres la nueva interpretación que el hombre europeo estaba empezando a fraguar sobre su propia realidad; a despecho de las muchas ediciones del "Examen", de su traducción a todos los idiomas hablados en la Europa occidental, su mensaje no podía ser interpretado y aceptado, pues se anticipa en siglos a la hora histórica en que podía ser comprendido.

*Jose M.<sup>a</sup> Urkia Etxabe*  
Euskalerriaren Adiskideen Elkartekoa